

Ikerketa Estrategikoak

1. Zk.

**Euskal Herriko klase
sozialen kuantifikazioa,
hurbiltze-saioa**

Proletariotzaren eta proletarizazioaren
gaineko analisia



**Ikerketa
Sozialisten
Institutua**

Aurkibidea

1. Azterlanaren helburua	4
2. Aztergaia	5
3. Analisi-markoa eta funtsezko kontzeptuak	7
4. Metodologia	12
5. Kontzeptuak aldagai bilakatzea	15
6. Aldagaiak adierazle bilakatzeko inkestak	18
7. Adierazle estadistikoak osatzeko kalkulu-prozedurak eta iturriak	19
8. Aldagaiak Adierazle Estatistiko Bilakatzea	28
Lan-indarraren balioa	28
Kapitalistak	29
Langile aristokrazia	32
Proletariotza	34
9. Datuen Analisia eta Azalpena	36
10. Ondorioak	47
11. Erabilitako Baliabide Estatistikoak	49

1. Azterlanaren helburua

Azterlan honen xedea da gaur egungo euskal gizarteko estratu sozialak kuantifikatzeko saiakera egitea, azterlana egiterako garaian eskuragarri zeuden datu estatistikorik berrienak oinarri hartuta. Bertan azaltzen da langile-klaseak eta, zehazki, proletariotzak, osatzen dutela gizarte horren gehiengoa. Horrez gain, egungo datuak 2008ko krisialdi ekonomikoaren aurreko datuekin alderatzen dira, krisialdi horrekin “proletarizazio-prozesu” bat abiatu zela frogatzeko; azterlan honetan, proletarizazio-prozesutzat hartzen da langile-aristokraziaren estratuaren murrizketa eta proletariotzaren hazkunde progresiboa.

2. Aztergaia

Ikerlan hau “gizarte-estratifikazioari buruzko ikerketak” izenekoan esparruan kokatzen da; hain zuzen ere, ikerlan horien helburua da formazio sozial jakin bateko banakoak edo familiak talde bereizietan sailkatzea. Gizarte kapitalisten kasuan, talde horiek klase sozialak dira. Hala-ber, era horretako azterlan guztietan teorikoki jorratu daitezkeen bi alderdi daude: klase sozialak zehazterakoan definitzailatzat hartu behar diren atributuak, eta klase bakoitza osatzen duten banakoen identifikazioa eta kuantifikazioa. Ikerketa honek bi dimentsioak hartzen ditu kontuan.

Azterlan honek, hasiera batean, Euskal Herriko biztanle guztiak hartu nahi zituen aintzat; alabaina, eskuragarri dauden estatistika-iturrien kalitateak ezarritako mugen eraginez, ikerketa mugatu behar izan da. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko (hemendik aurrera, EAE) eta Nafarroako Foru Erkidegoko (hemendik aurrera, NFE) biztanleak hartu dira kontuan.

Aintzat hartutako aldiari dagokionez, erabilitako iturriek baldintzatua hori ere, lana idazteko unean eskuragarri zeuden azken datuak erabiltzeko hautua egin da. Hala, euskal familien diru-sarrerei, errentari eta ondareari buruzko datuak 2022koak dira; datuoi buruz 2023an galdetu zieten, eta 2024ko otsailean sintetizatu eta argitaratu ziren. Gastuei dagokienez –lan-indarraren baliora hurbiltzeko bakarrik

erabili dira—, 2023ko ekainean argitaratu ziren 2022ko datuak erabiltzea erabaki da.

Azkenik, biztanleria aktiboari buruzko informazioa ere erabili da, baina soilik bestelako bitartekoez kuantifika ezin daitezkeen aldagai batzuek denboran zein bilakaera izan duten islatzeko. Horretarako, 2023ari buruzko inkestak erabili dira, bai eta 2007ari buruzkoak ere; krisi ekonomikoa hasi aurreko urteari buruzkoak, hain zuzen.

3. Analisi-markoa eta funtsezko kontzeptuak

Honako analisi-markoaren helburua da gizarte-egitura kapitalista aztertu ahal izateko kontzeptu marxistak finkatzea. Horrez gain, xedea da kontzeptuok finkatzea hirtan zatitutako eskemarik erabili gabe; alegia, klase kapitalistaren eta langile-klasearen artean erdi-mailako klasea jartzen duen eskemarik erabili gabe. Horretarako, honakoa proposatzen da: ekoizpen-modu kapitalistak soilik bi *klase sozial* handi sortzen ditu, kapitalistak eta langileak, eta bi klase horietako bakoitzaren barruan hainbat *estratu* identifika daitezke.

Ekoizpen prozesuan jokatzeko duten paperaren arabera bereizten ditu Ekonomia Politikoaren Kritikak kapitalistak eta langile-klasea. Kapitalistak kapitalaren jabeak dira. Bestela esanda, kapitalistak besteren lan-indarrak balorizatutako ekoizpen-bitartekoen jabeak dira; hain justu, «D – M – D'» formulak adierazten duen zikloarekin bat, sistematikoki zirkulatu ahal izateko neurrian balorizatutakoak. Azterlan honetan erabaki da “kapital” terminoarekin izendatzea soilik irizpide hori betetzen duen jabetza, onarturik kapital gisa funtzionatzen ez duten beste ekoizpen-bitarteko batzuk egon daitezkeela. Izan ere, ekoizpen-bitarteko batzuen kontsumoak –jabea ez den beste norbaitek lan eginda ere– ez du sortzen metaketa-prozesua gertatzeko adina plusbalio, eta jabearen bizi-baldintzak erreproduzitzea baino ez du

ahalbidetzen. Kapitalisten definizio horri langile-klasearena kontra-jartzen zaio; klase horretako kide dira kapitalaren jabeak ez direnak.

Bestalde, “kapitalista” kategoriaren definizioa osatzean pertsonen posizio potentziala ere aintzat hartu beharra dago. Horiek horrela, kapitalista da *potentzialki* kapitalaren jabe izan daitekeen edonor. Alegia, kapitalista da kapital gisa zirkulatzeko besteko balio-magnitudearen jabe den hori, nahiz eta behin-behinean diru gisa gordeta edo merkantzia gisa pilatuta izan; edo, nahiz eta errenta- edo interes- truke beste kapitalista baten esku utzitako ekoizpen-bitartekoen jabe izan.

Langile-klasearen definizioa era negatiboan ematen da: langileak dira kapitalaren jabeak ez diren horiek. Oro har, baldintza horrek bizitzeko bitartekoak eskuratzeko lan egin beharra dakar. Hala ere, gerta daiteke bizitzeko bitartekook lortzea soldata geroratuaren bidez (erretiratuak eta aurretik lan egin duten langabeak), estatuaren prestazioen bidez edo etxe-unitateko beste kide baten lanaren bidez. Kasu horietan guztietan, pertsona horiek langile-klaseko kideak dira.

Bi definizio horien bitartez, posible da hiru zatiko eske- ma saihestea, hau da, kapitalisten eta langile-klasearen artean erdi-mailako klasea kokatzen duena; izan ere, alokai- ru bidezko ekoizpen-bitartekoekin lan egiten duen langileaz gain, bere ekoizpen-bitarteko propioekin lan egiten duen langilea ere ez da kapitalista. Langile batek ekoizpen-bitartekoak dauzkan kasuan (lan-indarra kontratatuta izanda ere), ez du kapitala metatzeko adina balio sortzen eta, beraz, ezin du bere burua lan-prozesutik askatu. Ondorioz, bere ekoiz-

zpen-bitartekoekin sortutako balioak etengabe zirkulatzen du, dela merkantzia-formapean, dela diru-formapean, baina bere magnitudea hazi gabe, ez baitu kapitala metatzeko adina plusbalio sortzen; hau da, ekoizpen bitarteko horiek ez dira kapitala. Jabe txiki horien ekoizpen-bitartekoek ez dute lan biziaren kantitate handirik xurgatzen; areago, jabeak eurak kateatzen dituzte lanera, desbalorizazioa eta ondorengo porrota ekiditeko xedez. Ondorioz, jabe txikiok langile-klasaren parte dira. Bereizketa horren bidez, finean, bereizi egiten dira *kapitala ekoizteko bitartekoak* eta *balioa ekoizteko bitartekoak*. Lehenengoen, kapitalisten jabetzakoek, plusbalio-kantitate handiak ekoizteko aukera ematen dute lanaren ustiapenaren bidez; hala, plusbalio hori bera metatzeko eta jabearen kapitalista-estatusa mantentzeko balio dute. Bigarrenek, aldiz, plusbalioaren ekoizpena ahalbidetzen duten kasuan ere (eta ez soilik haien balioaren transferentzia), ez diote metaketari bide ematen; hortaz, jabeak bere bizi-baldintzak erreproduzitzeko baino ez ditu erabiltzen.

Jabe txikiak diren langileak ez dira nahasi behar kapitalista txikiekin (ikerketa honetan, kapitalisten estratu posible hori ez da kuantitatiboki isolatu); izan ere, kapitalista txikiek *badute* nahikoa kapital berau balorizatzeko behar den beste lan-indar kontratatzeke eta, hala, aukera dute lan-prozesutik kanpo geratzeko. Kapitalista txiki horiek ez dira beste kapitalista handiago batzuk bezain lehiakorrak, kapital-masen artean (eta, hortaz, irabazi-masen artean) dagoen aldea dela eta. Nolanahi ere, kapital-jabeak dira, baliorik galdu gabe erreproduzitzen den kapitalarenak; eta, beraz, plusbalioaren jabe egiteko aukera dute. Hala, aurkeztu

den kontzeptualizazioaren bitartez, kategoria juridikoen eta sozioekonomikoen arteko nahastea ekiditen da, gizarte-es-tratifikazioari buruzko analisi ugariaren oinarrian dagoena: pertsona autoenplegatuen kategoria juridiko-estatistikoa burgesia txikiaren edo erdi-mailako klasearen kategoriarekin berdintzea.

Kapitalistak eta langileak bereizteko kapital-jabetza jo da printzipiotzat; langile-klasearen barne-bereizketarako, aldiz, printzipioa bestelakoa da: bere egiten duten aberas-tasun soziala beren lan-indarra erreproduzitzeko behar den adinakoa (edo txikiagoa) den, ala handiagoa den. Era horretan, langile-klasearen barruan bi estratu bereizten dira:

Alde batetik, *proletariora*. Proletarioak dira lanaren bi-dez beren bizi-baldintzak erreproduzitzeko beharrezkoak diren bizi-bitartekoak soilik eskura ditzaketenak. Oro har, “besteek enplegatutako” dira; hau da, lan-indarraren saltzai-leak zentzu hertsian. Hala ere, askotariko langile motak sar daitezke kategoria horretan. Irizpide definitzailea betetzen badute, izan daitezke kapitalistek enplegatutako langileak, langile-aristokraziako kideek enplegatutako edo beren kon-tura lan egiten dutenak, edo are, merkantziarik ekoizten ez duten etxeke langileak. Halaber, kategoria horren barruan kokatzen dira une honetan lanean ari ez direnak, baldin eta lan egin izan dutenean jaso duten ordainsariak arestiko iri-zpidea betetzen bazuen, hau da, langile gisa erreproduzitze-ko beharrezkoa baino ez izatea ordainsari hori (proletario ohiak edo potentzialak). Hortaz, kategoria horretan sar dai-tezke langabezia dauden proletarioak edo erretiratu batzuk

(hain zuzen ere, lan egiten zuten garaiko proletario-soldata geroratu kobratzen ari diren erretiratuak).

Estratu horri kontrajarrita *langile-aristokrazia* dago; langile-klasearen goi-estratua, alegia. Estratu horretako ki-deak, beren lanaren bitartez edo beste bide osagarri batzuk erabiliz, baldintza arruntetan erreproduzitzeko behar duten aberastasuna baino zati handiagoaren jabe egiten dira. Oro har, estratu hori identifikatzeko, literatura akademikoak hemen erabiltzen diren printzipioak ez bezalakoak erabili izan ditu, hala nola eskuz egiten ez diren lanak (lan intelektuallak) egitea, estatuaren enplegatu izatea, ekoizpen-prozesuak gainbegiratzen lanean aritzea edo izaera ideologikoa edo kulturala duten lanak egitea (irakasleak, kazetariak, abokatuak...). Zalantzarik gabe, ezaugarri horiek guztiak interesgarriak dira eta badago kontuan hartzea beste ikerketa batzuetan. Hala ere, ezin badira zerrenda osatu eta mugatu batean ezaugarriok bateratu eta ezin bada horietako bakoitza langile-aristokraziaren lanaren ezaugarritzat jo (berariaz proletarioa den lanarekiko kontrajarrita), barne-irizpiderik gabe elkartutako atributuak baino ez dira. Horiek horrela, erabaki da langile-aristokraziaren estratua bereizteko irizpidetzat honakoa hartzea: lan-indarra erreproduzitzeko behar den aberastasuna baino handiagoaren jabe egitea.

4. Metodologia

Gizarte-estratifikazioari buruzko azterlanen abiapuntua beti izaten da murrizketa logiko hau: formazio sozialeko banako bakoitzari klase sozial bat eta bakarra eslei dakiok.

Sailkatze-ariketa honetan, Ekonomia Politikoaren Kritikako kategoriek *zuhaitz taxonomiko* forma hartzen dute. Zuhaitzaren hasierako nodoak euskal herritar guztiak ordezkatzeko ditu. Nodo horretatik bi adar, eta bi soilik, hedatzen dira, aurreko puntuan azaldu den *bereizketa-printzipio*arekin bat: kapitalaren jabetza. Jabeak klase kapitalistako kideak dira; jabe ez direnak, berriz, langile-klaseko kideak. Bitan adarkatze horrek aukera ematen du funtsezko kontzeptu horien barne-bereizketan are gehiago sakontzeko. Analiaren helburuen arabera, kapitalisten eta langileen klase sozialen barruan bereizketak egiteko hainbat irizpide hauta daitezke. Dena den, ikerketa honen interesgunea langile-klasearen barruko proletarizazioa denez, ez dira klase kapitalistaren barruko estratuak bereizten. Aldiz, langile-klasean bi estratu bereizten dira, banakoek eskuratzen duten aberastasun-kopurua bereizketa-printzipiotzat hartuta.


Marko teoriko honen operatibizazio egokiak (hau da, proposatzen diren kontzeptuak adierazle bihurtzeko –hots, datuen analisirako erabilgarri– gauzatu behar diren eraldaketak) beharrezko egiten du kontzeptu horietara itzultzea, eta generoaren eta desberdintasun espezifikoaren arabera deskonposatzea. Adibidetzat har daiteke langile aristokra-

taren kontzeptua, zeinak barne hartzen baititu langile klasearen (generoa) barruan beren lan-indarraren balioa baino handiagoa den aberastasun-kopurua eskuratzen dutenak (desberdintasun espezifikoa). Desberdintasun espezifikoa txertatzeak, generoaren nodoa bitan adarkatzea dakar; beraz, generoaren parte den edozein banakori definizio hori predikatzean, hari buruzko baiepen bat egiten da egiazkoa edo faltsua izan daitekeena. Horrek bidea irekitzen du *aldagaiak* eraikitzeko; aldagaiak, hain zuzen ere, datu enpirikoaren tratamenduan erabiliko diren behin betiko adierazleen eta jatorrizko kontzeptuen arteko zubia dira.

Aldagaiak kontzeptuen definizioaren parte diren atributuak banakatuta lortzen dira. Halaber, aldagaiak izaera *modala* dute, eta horren arabera erlazionatzen dira kontzeptuekin. Aldagaiak *modalitatea* izateak zera esan nahi du: talde bateko kideen ezaugarriak baldintza nahikoak direla (haien presentzia nahikoa da zehazteko banako hori klase edo estratu jakin bateko kide den) edo baldintza beharrezkoak direla (haien presentzia beharrezkoa da zehazteko banako hori klase edo estratu jakin bateko kide den). Gainera, bi mota horiek gurutzatu egin daitezke. Hala, nahikoak eta beharrezkoak diren aldagaiak daude, nahikoak diren baina beharrezkoak ez diren aldagaiak, eta beharrezkoak diren baina nahikoak ez diren aldagaiak (eta, noski, ez-nahikoak eta ez-beharrezkoak diren ezin konta ahala aldagai, baina horiek ez dira aipatu, hutsalak baitira sailkapen-ariкета egiteko). Azterlan honetan, aldagai nahikoak eta ez-beharrezkoak erabiltzea erabaki da; izan ere, horiek ematen dute aukera estatistika-materiala zehatz tratatzeko, hots, ezau-

garri bat edo gehiago asetzen duten biztanle-taldeak isolatu ahal izateko. Alabaina, aldagaiek jasotzen dituzten atributuek ez dute dimentsio kuantitatiborik. Dimentsio hori adierazleek biltzen dute; eta, hain justu, horrek ahalbidetzen du kontzeptuak material estatistikoaren tratamenduan erabiltzea.

Izan ere, *adierazleek* kontzeptuen unibokotasuna jasotzen dute, bai eta aldagaien modalitatea ere; eta, horrez gain, ekoizpen-modu kapitalistaren dimentsio kuantitativoa ere adierazten dute. Hala, adierazleak dirutan neurtzen diren ezaugarriak dira eta, posible egiten dute banakoei aldagaia erantsita baiespen egiazkoak ala faltsuak egitea.



5. Kontzeptuak aldagai bilakatzea

Atal honetan, banakoak hiru talde sozialetan sailkatze aldera, hirugarren ataleko kontzeptuen deskonposizio analitikoak gauzatzen da nahikoak eta ez-beharrezkoak diren aldagaietan. Aldagaiok aurkezten diren ordena Ekonomia Politikoaren Kritikako kategorien aurkezpen-ordenaren alderantzizkoa da, zeinetan enpresa-irabazia aurkezten baita lehenbizi, eta interesa eta errenta ondoren. Dena den, honako aurkezpen-ordena zazpigarren ataleko adierazleen hurrenkerari zor zaio soilik; izan ere, erabilitako estatistika-iturriaren egiturak beharrezko egiten du lehenik eta behin finantza- eta higiezin-aktiboen jabetzatik datozen errentak identifikatzea.

Kapitalisten aldagaiak, hau da, kapitalaren jabe direnenak.

- Interesa edo errenta sortzen duen kapitalaren jabetza. Funtsean, akzio-partaidetzen edo aktibo higiezinaren forma juridikoa duten jabetzak dituzten kapitalistak dira.
- Kapital produktiboaren, ekoizpen-bitartekoaren eta lan-indarraren jabetza, nahikoa magnitude duena (jasotako irabazien arabera neurtuta) kapitalista askatzeko lan-prozesuan parte hartzeko beharretik.

- Kapital produktiboaren edo beste mota bateko kapitaren jabetzarik ez izanda ere, aberastasunaz jabetzea, halako moldez non aberastasun horren magnitudea nahikoa den kapital gisa zirkulatu ahal izateko, jabetze horren figura juridikoa edozein dela ere (oro har, soldataren figurapean).

Langile-aristokraziaren aldagaiak, hau da, beren lan-indarra erreproduzitzeko behar dutena baino aberastasun handiagoaren jabe egiten diren langileak.

- Dituzten jabetza txikiek interesak edo errentak sortzen dizkieten jabeak; alegia, beren lan-indarra salduz lortutako sarrerak osatzen dituztenak jabetza txiki horietatik lortutako sarrerekin.
- Ekoizpen bitartekoen jabe izanda ere, bitarteko horiekin kapitala metatzeko adina balio sortzen ez dutenak. Kapitala metatu ezin duten arren, jabe horiek beren lan-indarra erreproduzitzeko behar duten balioa baino gehiago eskuratzen dute; dela lana beraiek bakarrik eginda, dela kontratatutako beste langileren batekin.
- Azkenik, ondare gehigarriak izan ez arren, haien soldata altuari esker beren bizi-baldintzak erreproduzitzeko behar duten balioa baino gehiago lortzen duten langileak. Horrez gain, aipatzekoak dira, analisiaren azken zatian duten garrantzia dela eta, enpresa-irabazietan partedun diren langile kooperatibistak eta estatu-enpleguak.

Proletarioen aldagaiak, hau da, beren lan-indarra erreproduzitzeko beharrezkoa den aberastasun sozialaren (edo gutxiagoren) jabe egiten diren horienak.

- Lan-indarra saltzearen bitartez beren bizi-baldintzak erreproduzitzeko beharrezkoak diren funtsezko ondatsunak (eta ez gehiago) eskura ditzaketen pertsonak.
- Iraganean lan-indarra saldu izanari esker egun soldata geroratuak eskuratzen duten pertsonak (langabeak edo erretiratuak), soldata horren bitartez beren bizi-baldintzak erreproduzitzeko beste kontsumitu dezaketenak.
- Etxe-unitateko beste pertsona baten soldata zuzenaren bitartez irauten duten pertsonak.
- Estatuak emandako gizarte-prestazioetatik bizi diren pertsonak.

Aztertutako datuen egitura dela eta, talde hori (proletariotza) kuantitatiboki isolatzen da kapitalisten eta langile-aristokraziaren atributuak ez dituzten banakoak identifikatuta. Bestalde, lan-indarraren balioak zehazten du, batetik, non dagoen muga lan-indarra erreproduzitzeko beharrezkoa den aberastasunaren eta erreprodukzio hutsa gainditzeko duenaren artean; eta, bestetik, lan-indarra erosteko nahikotzat jotzen diren diru-sarreraren magnitudea. Horregatik, azterlan honetan lan-indarraren balioaren zenbatespen bat proposatzen da.

6. Aldagaiak adierazle bilakatzeko inkestak

Bigarren atalean aurreratu denez (ikerketaren muga geografikoak eta denborazkoak ezartzerakoan), erabilitako datuak honakoak dira: 2024ko otsailean Espainiako Estadística Institutuak (hemendik aurrera, INE) argitaratu zuen bizi-baldintzen inkestak (hemendik aurrera, ECV) 2022eko diru-sarreraren inguruan ematen dituenak. Horien bitartez, klase eta estratu sozial bakoitzak euskal gizartean duen pisuaren ehunekoa zenbatetsi da, aurreko atalean jasotako aldagaiak betetzen dituzten pertsonen kopurua kontuan hartuta. Familien aurrekontuei buruzko inkesta (hemendik aurrera EPF), INEek 2023ko ekainean argitaratua, lan-indarraren balioa zenbateteko baino ez da erabili.

Horrez gain, azterlanak soldata-egituraren inkesta (EES) eta biztanleria aktiboaren inkesta (EPA) ere erabili ditu, ECV edo EPF inkestetan ageri ez diren datuek denboran izan dituzten aldaketak aztertzeko. Kasu horietan, aldagai batek denboran izan duen bilakaera inkestan definitu eta aztertutako eran aurkeztuko da.

7. Adierazle estadistikoak osatzeko kalkulu-prozedurak eta iturriak

Hemen bildu eta justifikatu dira aldagaiak adierazle bihurtzeko (zazpigarren atala) eta proletarizazio-prozesuaz hitz egiteko (bederatzigarren atala) erabilitako datu guztiak. Datuak testuko hurrenkeran ageri dira dagozkien iturriak aipatuta.

ALOKAIRUAREN PREZIOA ETA ETXEBIZITZEN EROSKETA

Honi dagokionez, EAE da datu propioak dituen autonomi erkidegoa, Eustat erakundeak bermatuak¹. Esaterako, higiezin en errentetatik 20.000 euro jasotzen dituen errentatzailea alokairurako 2,24 etxebizitza baino gehiagoren jabe da.

$$\frac{20.000}{744,4 * 12} = 2,24$$

¹ “Etxebizitzaren prezioari eta premiari” buruzko estatistika-etaulak dira, eta alokairuaren batez besteko prezioaren berri ematen dute, baita bigarren eskuko etxebizitza erosteko batez besteko prezioaren berri ere. Hemen eskura daitezke: https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_444/opt_0/tipo_1/temas.html

Izan ere, a) 744,4 euro zen 2022aren amaieran indarrean zegoen alokairuaren hileko prezioa; b) 12 kuota (hilero bat) kobratzen dira; c) errentatzailearen diru-sarrerara garbia ez da, edozein kasutan, alokairuaren prezioa baino handiagoa, gutxienez PFEZ-a deskontatu behar baita. Beraz, urtean errentetatik 20.000 euroko diru-sarrerak dituen, litekeena da 3 etxebizitza ingururen jabea izatea. *Eustaten* arabera, etxebizitza bakoitzaren batez besteko balioa 246,489 eurokoa zen 2022 amaieran. Datu horien arabera, higiezinaren jabetzak urtean ematen duen errentagarritasuna:

$$\frac{744,4 * 12}{246.489} = \%3,62$$

LAN INDARRAREN BALIOA

Lehen kalkulua denez, hona hemen, zehazki, nola bateratu diren EAEko eta NFKko datuak batez besteko ponderatua kalkulatu, zeinak ahalbidetzen baitu Hego Euskal Herriko balio bakarra lortzea². Kasu honetan, ponderatu den elementua 2023. urteko soldatapekoen zenbatekoa izan da.

EAEn soldatapekoak:

843.300 soldatapeko; guztizkoaren % 77,20.

² EPAren taula honetan ikusgai: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=4953&L=0>. Autonomia-erkidego bakoitzeko soldatapekoen batez besteko gastuaren datuak, kontsumo-unitateko, hemen daude (EPFn jasoak): <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=25150&L=0>.

NFKn soldatapekoak:

249.000 soldatapeko; guztizkoaren % 22,80.

EAEko soldatapekoen urteko batez besteko gastua:

21.887,87€

NFKko soldatapekoen urteko batez besteko gastua:

20.937,83 €

$$21.887,87 \times 0,7720 + 20.937,83 \times 0,2280 = 21.671,27\text{€} \cong 21.700\text{€}$$

LAN INDARRA KONTRATATZEKO KOSTUA

Enplegatzaile batek lan-indarra kontratatzeke duen gaitasuna ez du lan-indarraren beraren balioak (kontsumo-produktuetara sarbidea izateko diru-sarrerak, soldata garbia) bakarrik baldintzatzen, zeharkako soldata eta geroraturatutako soldata finantzatzeko estatuari eman behar dion zenbatekoak ere eragina dauka. Kalkulua egiteko, aztertutako aldiko lan-indarraren soldata ertaina (gordina)³ hartu behar da kontuan, eta hori lan-kostu osoaren⁴ ehuneko zenbat den. Kasu bietan inkestek 2021 ematen dute seriearen azken urte gisa. Arestiko gisan, batez besteko ponderatua

³ Soldata Egituraren Inkestaren zati bat, hemen eskuragarri: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=28191>.

⁴ Lan Kostuen Inkestaren zati bat. Hemen kontsulta daiteke: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=9131>.

autonomia-erkidego bakoitzeko soldatapeko biztanleriaren gainean egin da.

Soldata Ertain Gordina:

$$27.884 \times 0.772 + 25.606,9 \times 0.228 = 27.364,82 \cong 27.365\text{€}$$

Soldataren ehunekoa lan-kostuarekin alderatuta:

$$72,79 \times 0.772 + 73,31 \times 0.228 = \% 72,99 \cong 73$$

Lan-kostua:

$$27.365 \times 100 \div 73 = 37.486,30 \cong 37.500\text{€}$$

PREZIOEN ALDAKUNTZA

KPIa prezio-mailaren garapena ebaluatzeko neurri fidagarrienaenez, indize horren balioak hartu behar dira kontuan autonomia-erkidego bakoitzean (2008ko urtarrila eta 2021ko abendua artean)⁵. Izan ere, horrek ahalbidetzen du prezio-mailaren eta soldata ertainaren igoerak alderatzea. EAEn % 24,7koa eta NFKn % 22,4koa izaki, Hego Euskal Herri guztirako 24,17 inflazio-puntuko batez besteko ponderatua⁶ lortzen da (autonomi erkidegoetako biztanleria totalaren gainean).

⁵ Hau da aukeratutako aldiaren autonomia-erkidego bakoitzaren datuak eskuratzeko erabilitako tresna: <https://www.ine.es/varipc/>.

⁶ 2021ean autonomia-erkidego bakoitzeko biztanleria osoa erabilia, INEren errolda erabilgarria: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=2853&L=0>.

$$2.213.993+661.537=2.875.530; \frac{2.213.993}{2.875.530}=\%76,99;$$

$$\frac{661.537}{2.875.530}=\%23,01$$

$$24,7 \times 0.7699 + 22,4 \times 0.2201 = \% 24,17$$

Era berean, interesgarria da 2022ko urtarriletik 2023ko abendura bitarteko inflazioaren datua lortzea, kontuan hartuta 2022ko eta 2023ko prezioen igoerak soldata errearen devaluazio-prozesua areagotu duela ezinbestean. Dena den, egitate hori, oraingoz, azterlan honen kalkulu-gaitasunetik at dago, 2022ko eta 2023ko soldata ertainari buruzko datuak ez izaki. 2008ko prezioen maila berriro ere oinarritzat hartuta, EAEko igoera % 35,5koa da eta NFKkoa % 34koa. Batez besteko ponderatua % 35,15 da.

$$35,5 \times 0.7699 + 34 \times 0.2301 = \% 35,15$$

SOLDATA ERTAINAREN ALDAKUNTZA

Kalkuluak, lan-kostuaren kasuan bezala, aztertutako urte bakoitzean eta (autonomi erkidego bakoitzeko) soldatapeko biztanleria osoaren arabera ponderatuta egiten dira. 2008. urtea da erabilitako inkestan ageri den lehen urtea, eta, gorago adierazi bezala, oraingoz 2021era arte iristen da.

Soldatapeko biztanleria 2008an:

$$813.800+239.900=1.053.700; \frac{813.800}{1.053.700}=\%77,23;$$

$$\frac{239.900}{1.053.700}=\%22,77$$

2008ko soldata ertain gordina:

$$23.143,68 \times 0.7723 + 21.369,54 \times 0.2277 = 22739,71 \cong 22740\text{€}$$

2021eko soldata ertain gordina:

$$27.884 \times 0.772 + 25.606,9 \times 0.228 = 27.364,82 \cong 27.365\text{€}$$

Aldakuntza.

$$\frac{27.365 - 22.740}{22.740} = \%20,34$$

LANBIDE-EGOEREN BILAKAERARI BURUZKO ADIERAZLEAK 2007 ETA 2021 ARTEAN

Kooperatibisten, autoenplegatuen (hau da, autonomoak edo lan-indarrik kontratatzen ez den negozio txikien ja-beak) eta sektore publikoko langileen kopuruari buruzko ehunekoak erabiltzen dira, landun guztiekin alderatuta⁷. Ponderazioa egiteko kontuan hartu da autonomia-erkidego

⁷Hemen eskuragarri: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=4954&L=0>.

bakoitzak, aztertutako urteetan (2007 eta 2023), Hego Euskal Herriko biztanleria landunean duen pisua.

$$1.001.100 + 295.500 = 1.296.600; \frac{1.001.100}{1.296.600} = \% 77,21;$$

$$\frac{295.500}{1.296.600} = \% 22,79$$

Hemen ez dira adierazi lanbide-egoera bakoitzari buruz lortutako emaitzak, bederatzigarren ataleko bigarren puntuan azaldu baitira xeheki.

SEKTORE PUBLIKOAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA

Bi autonomia-erkidegoetako sektore publikoko behin-behinekotasunaren ehunekoak erabili dira⁸. Ponderazioa egiteko, autonomia-erkidego bakoitzak funtzionarioen guztizko kopuruan (2007an eta 2023an) duen pisua erabili da.

$$134.500 + 38.300 = 172.800; \frac{134.500}{172.800} = \% 77,84;$$

$$\frac{38.300}{172.800} = \% 22,16$$

$$171.400 + 50.400 = 221.800; \frac{171.400}{221.800} = \% 77,28;$$

$$\frac{50.400}{221.800} = \% 22,72$$

⁸ Hemen eskuragarri: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=4963&L=0>.

EZ-AKTIBOAK ETXeko LANENGATIK

Ez-aktiboen guztizkoaren gaineko ehunekoa da⁹. Zifra bakarra lortzeko ponderazioa autonomi erkidego bakoitzeko pertsona ez-aktiboen (2007an eta 2023an) kopuruaren gainean egin da.

$$773.600 + 196.100 = 969.700; \frac{773.600}{969.700} = \% 79,78;$$

$$\frac{196.100}{969.700} = \% 20,22$$

$$801.800 + 226.600 = 1.028.400; \frac{801.800}{1.028.400} = \% 77,97;$$

$$\frac{226.600}{1.028.400} = \% 22,03$$

IRAUPEN LUZEKO LANGABEAK

Bederatzigarren atalean eskaintzen den azken datua lan bila bi urte baino gehiago daramaten pertsonen ehunekoa da, langabe guztiekin alderatuta¹⁰. Ponderazioa egiteko, langabeen guztizko kopurua (2007an eta 2023an) eta autonomia-erkidego bakoitzari dagokion ehunekoa erabili dira.

$$66.400 + 14.600 = 81.000; \frac{66.400}{81.000} = \% 81,98;$$

$$\frac{14.600}{81.000} = \% 18,02$$

⁹ Hemen aurki daiteke: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=4976&L=0>.

¹⁰ Taula honetan eskaintzen da: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=4972&L=0>.

$$79.500+32.300=111.800; \frac{79.500}{111.800}=\% 71,11;$$

$$\frac{32.300}{111.800}=\% 28,89$$

Datu eta iturri horiek, 2023ko bizi-baldintzen inkestako galdetegietan jasotakoekin batera, nahikoak dira azterlan honetan agertzen diren kalkuluak egiteko eta, hala nahi izanez gero, lortutako emaitzen zuzentasuna egiaztatzeko.

8. Aldagaiak Adierazle Estatistiko Bilakatzea

Jarraian azaltzen da nola bihurtu diren adierazle estatistiko bosgarren atalean identifikatutako aldagaiak. Adierazle horien presentzia edo absentzia modu garbian zehaztu daiteke aztertzen den biztanleria-laginean, hau da, ECVtik ateratakoan. Horrez gain, hasieran azaltzen da nola egin den EPFren bitartez lan-indarraren balioa zenbatesteko saiakerara. EES eta EPA inkestek emandako informazioaren erabilerak ez du analisirik behar atal honetan; izan ere, datuak zuzenean erabili dira INEk emandako eran. EESren, EPAREN eta ECVren laginak bateraezinak dira, eta aztertu den aldirian langile-klasearen barne-osaeran izan diren zenbait aldaketa azaltzeko baino ez dira erabiliko.

LAN-INDARRAREN BALIOA

Lan-indarraren balioa langileek (kasu batzuetan, beren etxe-unitateko beste kide batzuk barne) ziklo ekonomiko batetik bestera –ziklo horien iraupena urtebetekoa dela– langile gisa erreproduzitzeko behar dituzten bizi-birtartekoen balioa da (dirutan adierazita, prezioa). Ikerketa honetan, lan-indarraren balioa zenbatesteko, 2022ko batez besteko gastuari buruzko datuak erabili dira, merkatuko ondasun eta zerbitzu guztiei dagozkienak.

Erabaki da gastuen partida partikularrak kanpo ez uztea, kalkuluan arbitrariotasuna txertatuko luketelako. Are gehiago, kontuan hartuta azterlan honen hipotesia dela herritarren gehiengoa langile-klaseko kide dela, kontraesana litzateke planteatzea kapitalisten kontsumoak guztiz desitxuratzen dituela datuak. Edonola ere, ahalegina egin da kontsumo horren eta langile-aristokraziaren sektore txiki baten kontsumoaren kuantifikazioa saihesteko; horretarako, batez bestekotik kanpo utzi dira beren negozioetarako lan-indarra kontratatua duten enpresariak. Hala, soilik soldatapeko langileen urteko batez besteko gastuak kontuan hartuta, kapitalisten eta langile-aristokraziaren gastuen ehuneko esanguratsu bat kuantifikatzea saihestu da –nahiz eta, akaso, nahikoa ez izan–. Bereizketarako gaitasun handiagoaren faltan, lan-indarraren balioa zenbatesteko aurkezten den kalkulua gainetsita dago; izan ere, balio horretan, proletariotzaren urteko beharrezko gastuez gain, kontsumo-gaitasun handiagoa duten langile-estratuko zati baten gastuak ere sartuta daude. Ondorioz, gabezia zuzentzea datu hori erabiltzeko moduari dagokio; etxe-unitateetako aurrezkien inguruko adierazleen erabilerari, hain zuzen. Hurrengo atalean aurki daitezke zenbatespena lortzeko egindako urratsak.

KAPITALISTAK

- Interesa edo errenta sortzen duten kapital-magnitude handien jabetza honela isolatzen da estatistikoki: batetik, akzioen edo bonuen jabetzatik eratorritako dibidenduen diru-sarrerak behatuta; eta bestetik, jabetza

higiezinaren alokairutik eratorritako diru-sarrerak behartuta. Banako bat kapitalista gisa sailkatzeko beharrezko diru-sarreraren maila honakoak zehazten du: kapital-jabetzek sortutako errenten bidez bizitzaren erreproduzio-kostua ordaintzeko gaitasuna izatea, inporta gabe errenta horien jatorrian pisu gehiago duten aktibo finantzarioek edo higiezinak. Beraz, kapitalista gisa sailkatuko da bi iturri horietatik eratorritako diru-sarrera garbiak deklaratu dituen oro, baldin eta diru-sarrera horiek urtean 20.000 euro baino gehiagokoak badira; banako hori, zentzu hertsian, errentatzailatzat jo daiteke. 20.000 euroko zifra erabili da eta ez 21.700 eurokoa (lan-indarraren balioa), hain zuzen, elkarriketatzaileak eskaintzen dituen diru-tarteak baldintzatzen dutelako galdetegiaren atal horretako galderen egitura. Hortaz, “20.000 euro edo gehiago” da erreferentzia-zenbakira gehien hurbiltzen dena. Era berean, nahiz eta posible den diru-sarrera horiek etxeko kide baten baino gehiagoren ekarpenaz osatzea, kapitalizat hartzeko bezain handia den aberastasun-masa osatzen dute. Eranskinean jasotako datuen arabera, diru-sarrera horiek higiezinaren bitartez lortzen dituenak (era horretako jabetzen errentagarritasuna burtsako jabetzen edo bonuen interes-tasa baino egonkorragoa da), alokatzeko gutxienez bi etxebizitza dauzka jabetzan –eta bakoitzak, batez beste, 246.489 euro baino gehiago balio du–.

- Kapitalistak dira, halaber, ekoizpen-kapitalaren jabeak, baldin eta irabazi-masa garbiak 70.000 euroko langa gainditzen badu (inkestako azken-aurreko tarte).

Zenbateko hori ezartzeko arrazoia honakoa da: familia-negozioaren figura ohikoa hartu da irizpidetzat; hala, etxe berean bizi diren bi lan-indar heldu erreproduzitzeko gastuak ordaintzeko behar diren 32.500 euroak kenduz gero (bigarren pertsonak lehenengo pertsonaren gastuen erdia partekatzen du, INEren kalkuluen arabera), artean ere 37.500 euro gelditzen dira gutxienez, oso-osorik kapitala metatzeko erabilgarri. Hori da, besteak beste, kapital aldakorra metatzeko gutxi gorabehera behar den diruaren magnitudea; hau da, lan-indar gehigarria kontratatzeko behar den zenbatekoa (37.000 euroko lan-kostua).

- Badaude, halaber, irabaziak soldataren forma juridikoaren bitartez jasotzen dituzten kapitalistak, era horretan jasotzen duten aberastasunaren magnitudea behar bestekoa baita kapital gisa zirkulatzeko (hau da, aurrezte-prozesu labur baten ondoren, jabetza finantzarioetan edo higiezinetan inbertitzeko, bai eta ekoinpuzen-kapitalean ere). Kasu horretan, artean kapitalaren jabe ez direnez, erabaki da galdetegiaren goiko tarte hautatzea; hau da, urtean 100.000 euro garbi baino gehiagoko ordainsariak.

- Bukatzeko, ikasle gazteen edo 16 urtetik beherako haurren kasuan, kontuan hartzekoa da beren gurasoetako bat, behintzat, kapitalista denean, haiek ere kapitalistak direla.

LANGILE ARISTOKRAZIA

- Lanaren bidez lortutako diru-sarrerak osatzen dituen errenta (finantza- eta higiezin- jabetzetatik eratorria) gehienez 20.000 eurokoa izan daiteke (kapitalistentzat ezarri den behe-muga, goi-muga da langile-aristokrazia-errentzat). Ildo horretan, lan-indarraren balioaren azpitik horrelako errentak jasotzen dituen langile aristokratatzat hartuko da. Nolanahi ere, 4.000 euroko behe-muga ere ezarri da, hor nonbait EAEn alokairu-erregimeneko etxebizitza batek emango lukeen diru-sarrerarik baxuena (gutxienez 50 puntu txikiagoa batez bestekoa baino, ehunekoetan). Beraz, kalkulu horretatik kanpo geratzen dira etxebizitza-merkatuko prezioetik behera alokatzen diren higiezin jabeak (adibidez, garajeak edo biltegi txikiak), bai eta antzeko magnitude txikiko finantza-aktiboak dituztenak ere.

- Irabazi-masa txikiak lortzen dituzten negozio-jabeei dagokienez, goi-muga urtean 70.000 eurotan ezarri da (kapitalisten kasuan behe-muga dena, alegia); behe-muga, berriz, 32.500 eurotan kokatzea erabaki da, hau da, elkarrekin bizi diren bi lan-indar helduren erreprodukzio-gastuak ordaintzeko behar besteko irabaziaz. Horri esker, familia-negozioak sar daitezke, beren bizi-baldintzei eusteaz gain laneko baliabideak erosteko (jabeak ez badira eta alokairu-erregimenean badaude) edo jabetza egonkortzeko progresiboki aurrezteko lortzen dutenak, metatzera iritsi gabe. Gainera, diru-sarrera garbiak maila horretatik behera, baina lan-indarra-

ren balioaren gainetik (21.700 eurotan ezarrita), sortzen dituzten negozioak ere sartuko dira; betiere lortutako guztia kontsumo-ondasunetan gastatu beharrik ez dutela (eta, hortaz, aurrezteko gaitasuna dutela) ziurtatuta. Horretarako, kontuan hartuko dira 4.000 eurotik beherako finantza-aktiboen edo higiezinaren jabetzak eta pentsio-plan pribatuetako urteko gastuak.

- Langile aristokraziako soldatapekoen kasuan, lehenik eta behin, lan-indarraren balioa baino ordainsari handiagoak jasotzen dituztenak isolatu behar dira; hau da, 21.700 eurotik gorako diru-sarrera garbiak dituztenak. Bigarren, lan-indar bat baino gehiago mantendu behar duten soldatak kanpo uzteko, egiaztatu behar da bada-goela gutxieneko aurrezki-gaitasuna adierazten duen beste ezaugarriren bat ere, diru-sarrera guztiak kontsumora bideratu behar ez diren seinale. Ezaugarri hori honakoa da: urtean 4.000 euro garbi baino gutxiago sortzen dituzten aktibo finantzario edo higiezinak izatea edo pentsio-plan pribatuei urtero edozein kantitate ordaintzea. Aurreko kasuan bezala, aktibo-mota horren jabe izan gabe ere, 32.500 eurotik gorako diru-sarrera garbiak dituztenak ere halakotzat hartzen dira, horixe baita elkarrekin bizi diren bi pertsona helduren bizitza-kostua.
- Hemen kategoria berri bat agertzen da: iraganean langile aristokratak izan zirelako proletarioena baino geroratutako soldata handiagoa dutenak. Pentsioen bilakera prezioen indizearen arabera delatuta soldaten

kotizazio-oinarrietan funtsatzen dela suposatuta, talde honetakoak zein diren zehazteko erreferentziatzat hartu beharrekoa zera da: proletarioen soldaten eta langile-aristokraziaren soldaten arteko bereizketa-irizpidea. Esan nahi baita, identifikatu behar dira 21.700 eurotik gorako pentsio garbiak jasotzen dituztenak eta, horrez gain, finantzen edo higiezinaren jabetzagatik ere diru-sarreraren bat dutenak, betiere aurreko puntuan adierazitako balioen azpitik. Mota horretako aktiboen jabe ez badira, nahikoa da urtean 32.500 eurotik gorako diru-sarrera garbiak lortzea; hots, etxe berean bizi diren bi lan-indar erreproduzitzeko beharrezko balioa eskuratzea.

- Azkenik, 16 urtetik beherako ikasle gazteak edo haurrak ere kontuan hartu behar dira, baldin eta haien etxean gutxienez langile aristokrata gisa sailkatu diren bi pertsona badaude. Langile aristokrata soldata bakarra ez da nahikoa gazteak kontsumo-maila altua izan dezan etxe-unitatea uzten duenean; horrelako bi soldatek, al-diz, ahalbidetzen dute kontsumo-maila hori.

PROLETARIOTZA

- Finantza-aktiboen edo higiezin-aktiboen jabetzagatik urtean 4.000 euro baino gehiago jasotzen duen pertsonarik bizi ez den etxe-unitateak dira proletarioenak.
- Soldatapean lan egin ordez bere kontura lan egiten duen pertsona bada, bere negozioak urtean 32.500 eurotik beherako diru-sarrera garbiak ditu. Sarrerok 21.700

euroren eta 32.500 euroren arteko tartean badaude, ez dago etxe horretan aurrezteko ahalmenaren zantzurik.

- Finantza- edo higiezin-errentarik jasotzen ez duena, ez eta 32.500 eurotik gorako soldata edo pentsio garbirik ere. Ezohiko kasuetan, aktibo mota horretatik datozen diru-sarrerak baditu, urtean 4.000 eurotik beherakoak dira. Gainera, diru-iturri nagusia (soldata edo pentsioa) 21.700 eurotik beherakoa du; hau da, lan-indarraren balioaren muga ezartzen duen kopurutik beherakoa. Horrela, ziurtatuta geratzen da aktibo horietatik datozen sarrerak kontingenteak edo aldizkakoak direla (banku-gordailua, herentzia, alokatutako trastelekua), eta pisu txikia dutela urteko diru-sarreraren guztizko zenbatekoan. Horrela, sarrera-mota hori dutenak langile aristokraziaren kategorian kokatzea saihesten da.

- 6 urtetik beherakoak, gazteak edo bestelako pertsona ez-aktiboak badira, etxe-unitatean bizi den inor ez da kapitalista, eta, gehienez ere, haietako bat bakarrik da langile aristokrata.


Horiek dira proletarioak sailkatzeko irizpideak. Hala ere, kontuan hartzekoa da, datuen egitura dela eta, langile aristokrata edo kapitalista gisa identifikatu ez diren pertsonak isolatuz kuantifikatzea erabaki dela.

9. Datuen Analisia eta Azalpena

PROLETARIOTZA GAUR EGUN

Bizi-baldintzei buruzko Inkestako (ECV) datuen tratamenduaren emaitzak dira honakoak, eta tauletan datoz dagoen grafiko zirkularrekin batera.

1. Irudia. 2023ko ECVk dakartzan datuen prozesamenduaren emaitza



Iturria: 2023ko bizi-baldintzei buruzko inkestako mikrodatuak, INE.

Datu horiek berretsi egiten dute azterlanaren hasierako hipotesia: proletarioek osatzen dute euskal gizartearen gehiengoa, langile-aristokraziaren oso gaineratik (% 30 baino ge-

hiago). Interesgarria da datuak xehatuta ikustea, hor ikusten baita langileen goi-estratu horren gotorlekua non dagoen.

1. Taula. Langile-aristokraziaren osaera sailkapen-arrazoiaren arabera. Biztanleria osoaren gaineko ehunekoa.	
Finantza- edo higiezin-aktiboen jabeak	% 9,97
Negozio txikiak edo autonomoak	% 1,40
Soldatapekoak	% 21,13
Pentsiodunak	% 7,70
Gazteak eta ikasleak	% 1,45

Iturria: 2023ko bizi-baldintzei buruzko inkestako mikrodatuak, INE

Ikus daitekeenez, lan-indarraren balioa baino diru-sarrerera handiagoak dituzten soldatapekoak dira langile aristokraziaren zatirik handiena osatzen dutenak. Horrek justifikatzen du hurrengo puntuan arreta berezia jartzea soldataren eta prezioen bilakaera-joerei; izan ere, joera horiek erakusten dute sektore horren posizio sozialari eusteko zailtasun progresiboa. Bestalde, kontuan hartzekoa da biztanleria osoaren % 9,97 aktibo finantzarioen eta higiezin jabetzaren bidez sailkatu dela langile aristokrata gisa. Horiek, beren kontura edo soldatapean ere lan egiten dutenez gero, estratuaren gorenko geruza osatzen dute; izan ere, kasuotan, lan edo pentsio bidezko diru-sarrereri (edozein direla ere) gehitu behar zaie gutxienez alokairuko pisu txiki baten errenten baliokideak sortzen dituzten aktiboen jabetza. Hala ere, ez dira estratuaren zati nagusia; langile aristokraziaren % 23,94 dira.

PROLETARIZAZIO PROZESUAREN ADIERAZLEAK


ECVk emandako datuak aztertu ondoren, beharrezkoa da aurreko inkestaren bidez arakatu ezin diren aldagai batzuei arreta jartzea. Alde batetik, soldata errearen murritzetaren adierazleak dira; eta bestetik, langile-klasearen barne-osaerari buruzko informazioa ematen dute. Laburpen-taula eta grafiko moduan eskaintzen dira, non adierazle bakoitzaren bilakaera zehatz-mehatz aztertzen den.

2. Taula. Soldata ertaina eta prezioen aldakuntza.			
	2008	2021	Aldakuntza metatua
Soldata ertaina ⁱ	22.740€	27.365€	% 20,34
Prezioen igoera 2008 eta 2021 artean ⁱⁱ			% 24,17
Prezioen igoera guztira 2008 eta 2023 artean ⁱⁱ			% 35,15

I. Iturria: norberak egina, 2008ko eta 2021eko soldata egituraren urteko inkestaren datuetan oinarrituta, INE.

II. Iturria: norberak egina, kontsumoko prezioen indizearen 2008ko urtarriko datuetan oinarrituta, INE.

2. Irudia. Soldata ertainaren eta prezioen bilakaerarekin.



Iturria: norberak egina, soldata egituraren inkestatik eta kontsumoko prezioen indizetik abiatuta, INE.

Datuen arabera, alde handia dago prezioen eta soldata ertainaren bilakaeraren artean. Izan ere, ikertutako aldiaren soldata nominalki % 20,34 igo bada ere, erosteko ahalmena galdu du, prezioen igoerak 3,83 puntuko aldea ateratzen baitio. Hau da, 2021 urte amaieran prezioak soldata baino % 18,83 gehiago handitu ziren. 2022 eta 2023 urteetako soldaten bilakaerari buruzko datuak ez dira argitaratu. Dena den, inflazioari buruzko datuak jakinekoak dira; eta, horien arabera, prezioen igoera nabarmena izan da azken 24 hilabeteetan. 2022ko urtarrila eta 2023ko abendua artean prezioak 10,98 puntu handitu ziren ehunekoetan (2008ko urtarrileko datuak oinarri). Horrek esan nahi du 2008an krisia hasi zene-

tik soldatapeko langileek erosteko ahalmena galdu ez zezaten, gaur egun soldatek urtean 31.836 euro gordinera iritsi behar zuketela, datu errealetatik ezin urrunago.


3. Taula. Lanbide-egoeren bilakaera 2007 eta 2023 urteen artean.

Situación profesional	2007	2023	Aldakuntza metatua
Kooperatibistak	% 2,50	% 1,07	% -57,07
Autonomoak	% 11,61	% 8,38	% -27,77
Sektore Publikoak enplegatuak	% 13,33	% 17,49	% 31,26
Sektore Publikoko aldi baterako langileak	% 33,04	% 43,36	% 34,26
Ez-aktiboak etxeko lanengatik	% 30,59	% 17,30	% -43,44
Iraupen luzeko langabeak	% 14,07	% 27,91	% 98,29

Iturria: norberak egina, INEren biztanleria aktiboaren inkestaren 2007ko eta 2023ko urteko batez bestekoetan oinarrituta.

Oro har, hirugarren taula horrek langile klasearen barne-berrosaketa adierazten du; munta handikoa, inondik ere. Batetik, erakusten du normalki erosteko ahalmen handiagoarekin lotuta dauden lanbide-egoerak murriztu direla (negozio txikiak, lanbide liberalak, kooperatibistak eta sektore publikoak enplegatuak); bestetik, familia-ekonomia mota jakin batek pisua galdu duela; eta, azkenik, langile-klaseko sektore ahulenen pauperizazioa areagotu dela. Horiek horrela, hona zenbait gogoeta, puntuz puntu.


3. Irudia. 2007 eta 2023 urteetan kooperatibistak biztanleria landunaren aldean.



Iturria: Norberak egina, INEren biztanleria aktiboaren inkestaren 2007ko eta 2023ko urteko batez bestekoetan oinarrituta.

2007. urtean, Espainiar estatuko autonomi erkidego batean ere ez zuten kooperatibistek biztanleria landunaren % 1 gainditzen, EAEn izan ezik (% 3 ziren). Bigarren lekuan NFE zegoen, % 0,9rekin, hain zuzen ere. Hortaz, lanbide-egoera horren pisua krisi aurreko balioaren erdira jaitsi izanak langile-aristokraziaren sektore espezifikoki euskaldun baten agorpena adierazten du.


4. Irudia. 2007 eta 2023 urteetan biztanleria landunaren aldean Autonomoak edo Soldatapekorik gabeko Negozioak.



Iturria: Norberak egina, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren 2007ko eta 2023ko urteko batez bestekoetan oinarrituta.

Autoenplegatuen joera, berriz, kooperatibetako kideenaren antzekoa da. EParen arabera, beren kontura lan egin eta lan-indarrak kontratatzen ez duten langileak dira autoenplegatuak (hortaz, langile aristokraziaren edo proletariotzaren parte), eta beren jaitsiera ere handia izan da: krisi ekonomikoa baino lehen bizi-baliabideak autoenpleguaren bitartez eskuratzen zituztenen ia herena galdu da.


5. Irudia. 2007 eta 2023 urteetan Sektore Publikoak enplegatuak biztanleria landunaren aldean.



Iturria: Norberak egina, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren 2007ko eta 2023ko urteko batez bestekoetan oinarrituta.

Aitzitik, sektore publikoko langileen datuek bestelako joera bat erakusten dute. Horietan % 31,26ko igoera sumatzen da ikertutako aldian. Hala ere, ausartegia litzateke esatea administrazio publikoan lan egiten duen % 17,49 horrek guztiak lortu duenik bere enplegatzaileak alde bakarretik hautsi ezin duen kontratu-posizio pribilegiaturik.


6. Irudia. Aldi baterako langileak, sektore publikoko langile guztien aldean.



Iturria: Norberak egina, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren 2007ko eta 2023ko urteko batez bestekoetan oinarrituta.

Izan ere, goiko grafikoan ikusten den gisan, igoera hori gertatzen ari zen aldi berean, lan-figura horren prekarizazioak ere gora egin zuen: estatu-administrazioak Hego Euskal Herrian darabilen lan-indarraren % 44k baino gehiagok aldi baterako kontratupean egiten du lan. Hortaz, grafikoak agerian uzten du lanbide-egoera hori eta egonkortutako funtzionarioarena parekatzea akatsa dela.


7. Irudia. Ez-aktiboak, etxeko lanetan aritzeagatik, ez-aktiboaren guztizkoaren gainean.



Iturria: Norberak egina, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren 2007ko eta 2023ko urteko batez bestekoetan oinarrituta.

Gainerakoan, landunetatik at, nabarmentzekoa da beharokada agerikoa izan duela etxeko beste heldu baten soldataren bidez (edo, oro har, diru-sarrerekin) lan-merkatuan sartu gabe irauten zuen pertsona-kopuruak. Figura normalki feminizatua izaki, litekeena da bilakaera horren kausetako bat kultur aldaketa izatea. Nolanahi ere, etxe-unitatearen erreprodukzioarako soldata bakarra, batez beste, jada ez da nahikoa, eta posible da 2007-2023 urteen arteko aldaketa izugarriaren oinarrian –egoera horrek ez-aktiboaren artean zuen pisua ia erdira murriztu zen– hori ere egotea.

8. Irudia. Langabetu guztiak kontuan hartuta, 2 urtez edo gehiagoz langabeak.



Iturria: Norberak egina, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren 2007ko eta 2023ko urteko batez bestekoetan oinarrituta.

Azkenik, proletarizazioaren dimentsio jakin bat bistartzen duen beste adierazle bati erreparatu behar zaio, azterlan honek aztertu ez duena, baina azpimarratzekoa dena: muturreko zailtasunak dituzten proletarioen kopurua handitu egin da. Horietako batzuk iraupen luzeko langabeak dira, eta 2 urte baino gehiago daramate arrakastarik gabe lan bila. Kopurua ia bikoiztu egin da, langabe guztien % 14,07 izatetik % 27,91 izatera igaro baita. Horrek esan nahi du langabezia dagoen lan-indarraren laurdena baino gehiago ataka gaiztoan dagoela enplegua aurkitzeko, eta egoera hori gogortu egin daitekeela denboraren joanean, talde horretan langabe berriak sartu eta lehendik daudenak ateratzen ez badira.

10. Ondorioak

Hona modu sintetikoan bilduta azterlanaren emaitza esanguratsuenak.

PROLETARIOTZA, GEHIENGO

Gaur egungo euskal gizartearen % 55,71 proletariotza-ren parte da. % 2,64 besterik ez da burgesa eta gainontze-ko % 41,65 langile-aristokrazia. Azken horretatik, % 9,97 da langile-aristokraziaren goiko geruzaren parte. Gainerakoak lan-indarraren balioaren ginetik dauden soldatapekoak dira gehienak.

SOLDATA ERREALAREN JAITSIERA

2008 eta 2021 urteen artean Euskal Herrian metatutako inflazio orokorra 24,17 puntukoa izan zen. Hau da, aldi horretantxe soldata ertaina hazi zena (% 20,26) baino % 18,83 gehiago hazi zen inflazioa. Ondorengo emaitzak, 2022 eta 2023 urteetakoak, are latzagoak dira, 24 hilabetean inflazio metatua 10,98 puntukoa izan baitzen. Prezioen igoerak eragindako arrakala berdintzeko, soldata ertainak urtean 31.836 euro gordinera iritsi beharko zukeen, egungo zenbatespenetatik urrunago ezin; aitzitik, egungo zenbatespenek soldata errealaren devaluazio-joera uzten dute agerian.

PROLETARIZAZIOA KRISI EKONOMIKOAZ GEROZTIK

2008ko krisiaz geroztik, langile-aristokraziaren klase-posizioa bermatzen duten lanbide-egoerek (kooperatibistak, autoenplegatuak eta sektore publikoko enplegatuak, esaterako) edo murriztera egin dute, edo nabarmen erasan die aldi baterako kontratuen hedapenak. Beste adierazle batzuek agerian uzten dute etxe-unitateek, geroz eta gehiago, lanak dituztela irauteko pertsona bakarra dagoenean soldatapean edo diru-sarrerak dakartzana. Era berean, langile-klasearen barruan egoera zaurgarrienean dauden pertsona-kopuruaren igoera bistakoa da: lana aurkitzeko zailtasun sistemikoak dituzten iraupen luzeko langabeak.

11. Erabilitako Baliabide Estatistikoak

Euskal Estatistika Erakundea (2022). *Higiezinaren salerosketari buruzko estatistika*. https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_444/opt_0/tipo_1/temas.html

Euskal Estatistika Erakundea (2022). *Alokairu merkatua-ren estatistika*. https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_444/opt_0/tipo_1/temas.html

Instituto Nacional de Estadística (2023). *Encuesta de Condiciones de Vida*. https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176807&menu=ultiDatos&idp=1254735976608.

Instituto Nacional de Estadística (2008; 2021). *Encuesta de Costes Laborales*. https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=estadistica_C&cid=1254736060920&menu=ultiDatos&idp=1254735976596.

Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta de Presupuestos Familiares*. https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176806&menu=ultiDatos&idp=1254735976608.

Instituto Nacional de Estadística (2008; 2021). *Encuesta de Estructura Salarial*. https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736177025&menu=ultiDatos&idp=1254735976596.

Instituto Nacional de Estadística (2007; 2023). *Encuesta de Población Activa*. https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176918&menu=resultados&idp=1254735976595#!tabs-1254736195128.



**Ikerketa
Sozialisten
Institutua**